

Detektagailuak

Detektagailuei buruzko ohiko galderak:



Metal detektagailu bat erostea pentsatzen ari naiz; legala da? Ba al dago metal detektagailuak erabiltzeko murrizketarik?

EZ EROSI iraganeko objektuak bilatzeko asmoz, zeren eta metal detektagailuak baimenik gabe erabiltzea ondare arkeologikoa HONDATZEKO eta ESPOLIATZEKO modu bat da.

Erabat debekatuta dago zona arkeologikoetan*. Soilik Araban milaka aztarnategi baino gehiago daude dokumentatuta, beraz, baliteke detektagailua erabiltzea delitua den leku batean erabiltzen aritzea.

Detektagailua ezagutzen ditugun zona arkeologiketatik kanpo erabiliz gero, ondasun arkeologiko bat aurkitzen duzun uanean jarduera oro eten behar duzu, Arabako Arkeologia Museoiari **berehala jakinarazi behar diozu** eta aurkitutako ondarea leku horretan bertan utzi behar duzu.

* Arabako Foru Aldundiaren baimena eduki ezean, lurzorua iraultzen duen prospekzio geofisikoa baita.

Ezin duzu objektua zeuretzat gorde, ondasun arkeologikoak jabari publikokoak baitira, eta ez duzu inolako konpentsaziorik eskuratuko aurkituntzagatik, Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legean EZ baita horrelakorik aurreikusitakoak.

Horrez gain, Araban aurkitutako objektu arkeologiko guztiak **BIBAT - Arabako Arkeologia Museoa**n gorde behar dira, gure lurraldeko material arkeologikoen gordailu ofizialaren zentroan, alegia. Ez entregatzea oso arau hauste larria da, eta 1.000.000 eurora arteko isunak eragin ditzake.

1985az geroztik aurkitutako material arkeologikoen **salmenta erabat debekatuta dago**.

Testuingurua dokumentatzeko eta objektuak eta egiturak ateratzeko berariazko metodoa eskatzen duen zientzia da arkeologia. Metodologia hori jarraitzen ez bada, datu berreskuraezinak galdu egiten dira, hain zuzen ere aurkitutako objektuak bezain baliotsuak edo are baliotsuagoak izan daitezkeen datuak.

Beraz, gogoratu:

Ondare arkeologikoa ondo dago dagoen lekuan. Ehunka edo milaka urtez biziraun du, eta ez dago arriskuan kontrolatu gabeko lur mugimendurik ez badago.


Historiaz eta naturaz gozatzeko modu asko daude. Arabak bisitatu beharreko ehunka leku zoragarri ditu, paseatzea eta gozatzea besterik eskatzen ez dutenak. Gure iragana deskubritzeko museo zoragarriak, milioika liburu eta online baliabide ugari dituzu eskuragarri.

Jarraibide hauek idazteko indarrean dauden lege eta arau hauek hartu dira oinarritzat:

Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legea

195/2018 Dekretua, Bilboko Burdin Hesia eta defentsak (Araba eta Bizkaia), monumentu multzo kategoriarekin, kultura ondasun kalifikatu izendatzeko dena.

323/1991 Foru Dekretua, zeinaren bidez Arabako lurralde historikoko jarduera arkeologikoak arautu diren.



Objektu arkeologikoak ustekabean aurkitzea

Ondasun arkeologiko bat ustekabean aurkitu dut; **zer egin behar dut?**



IRUDIAK: Gorka Otsos de Alda



Zein hartzen dira ustekabeko aurkikuntza modura?

Ausaz edo lurzorua irauli edo edozein motatako obra edo eraispen lanen ondorioz aurkitutakoak izango dira ustekabeko aurkikuntzak, aurkitutakoa existitzen zela jakina ez denean.



Zer egin behar dut Araban ondasun arkeologiko bat aurkituz gero?

Utzi objektua edo egitura dagoen moduan. Erdi lurperatuta badago, ez azaleratu eta ez garbitu; izan ere, pieza horren data zehazteko lagungarria izan daitekeen informazioa ezabatu dezakezu. **Argazkiak atera eta aurkikuntza puntua sakelako telefonoarekin zehaztu** (Google mapsekin, esaterako), edo krokis bat eginez edo erreferentziazko puntuen argazkiak ateraz.

Ondoren, **berehala jakinarazi Arabako Foru Aldundi-ko Museo eta Arkeologia Zerbitzuari.** Bibatera deitu ahal diguzu, Arabako Arkeologia Museora, **945 20 37 00** zenbakira, edo e-mail bat bidali **museoarqueologia@araba.eus** helbidera.

Objektu txikia bada eta desagertzeko edo hondatzeko arrisku larria badago, kontu handiz batu eta poltsa batean sartu behar duzu. **Ez garbitu;** aitzitik, objektuak inguruan zuen lur apur batekin mantentzea komeni da. Ez ahaztu aurkikuntza egin duzun lekuaren kokapena jaso behar duzula. Deitu lehenbailehen **BIBAT - Arabako Arkeologia Museora** eta zita bat eskatu objektua entregatzeko.



Baimendutako jarduera Cabez de Alcalá (Azaila, Teruel) aztarnategian (Argazkia: F. Romero "La tecnología de los detectores de metal principios de funcionamiento y análisis de los escenarios de expolio arqueológico" (JHC) artikulutik aterata).



Arkeologia jarduera arkeologikoa Larrarako Andra Maria tenpluan, Dulantzi. (Argazkia: Rafa Varón, ArkeoClio)



Aurkikuntza lurrak iraultzeko obren ondorioz egin badut, edo lurzatiak goldatzean, landaketa lanetan, zuhaitzak botatzean edo entresaka egitean, hesiak edo zulo egitean, etab.?

Aztarnak agertu diren zonan lanak eten behar dituzu, eta berehala jakinarazi behar diozu Museo eta Arkeologia Zerbitzuari. Langile teknikariek jarraibide gehiago emango dizkizute; bertaratu egingo dira edo adituren bat bidaliko dute aztarnen ezaugarriak jakin eta egin beharrekoa erabakitzeko.

Inork ez badu jakin aztarnak agertu diren leku horretan aztarnategi bat zegoenik, Arabako Foru Aldundiak ordainduko du beharrezko esku hartze arkeologikoa, salbu eta Eusko Jaurlearitzak ondasuna aitortzeko izapideak hasiz gero; kasu horretan, Aldundiak esku hartze arkeologikoaren kostuaren % 50 ordainduko du.



Aurkitutako objektuak norenak dira?

Obren ondorioz zein ustekabean aurkitutako ondasun arkeologikoak **jabari publikokoak** dira. Mugi daitzkeen objektuak izanez gero, nahitaez utzi beharko dira material arkeologikoen gordailu ofizialean, bertan gordetzeko; gure kasuan **BIBAT - Arabako Arkeologia Museoa**n utzi beharko dira (Aiztogile kalea, 54. 01001, Vitoria-Gasteiz).

Oharra: Jarraibide hauek **Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen** 74. artikuluan eta Arabako lurralde historikoko jardura arkeologikoak arautu zituen **323/1991 Foru Dekretuan** daude oinarrituta.

Informazio hau orientagarria da.

Informazio gehiago jasotzeko edo zalantzak argitzeko Arabako Arkeologia Museoarekin harremanetan jar zaitezke:

museoarqueologia@araba.eus
945 20 37 00



araba álava
foru aldundia diputación foral